

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### **Aguraingo hirigune historikoan jarduera ekonomikorik ez duten merkataritza lokal hutsak okupatzea sustatzeko laguntzen oinarriak eta deialdia**

Aguraingo Udalak, 2023ko otsailaren 15ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, Aguraingo hirigune historikoan jarduera ekonomikorik ez duten merkataritza lokal hutsak okupatzea sustatzeko laguntzen oinarriak eta deialdia onartzea erabaki zuen:

Aguraingo Udalak udalerriko hirigune historikoa garatzen eta dinamizatzen laguntzearen alde egiten du.

Alde batetik, Aguraingo udalerrirako Merkataritza Biziberritzeko Plan Bereziaren (MBPB) helburuen artean jasotako ekintza bat da. Plan horrek, merkataritza dinamizazioa hobetzeari buruzko ardatzaren barruan, lehentasunezko okupazioko lokal hutsak identifikatzea aipatzen du.

Bestalde, Erdi Aroko hiriguneko Barne Eraberritzeko Plan Berezian (BEPB) ere sartzen da ekintza. Zehazki, 3.2 puntuaren barruan hirigune historikoa biziberritzea bere helburuetako bat bezala aipatzen duenean, merkataritza erabilera udalerriko beste kokaleku batzuetara lekualdatzeko joera udalerraren puntu negatiboenetako bat bezala nabarmentzean, azkenik, gizarte eta hirigintza azterlanaren diagnostikoaren barruan, 7.3 puntuan hau berariaz jasotzeko, "zalantzarik gabe, jarduketa estrategiko horien helburua aurreko puntuan deskribatutako joerak eta egoerak ahal den neurrian ezabatzea izan behar da, hau da, hirigune historikoan bizitzeko interesa sustatzea eta saltoki berriak sortzea..."

Deialdi hau alokairuko laguntzetara bideratutako dirulaguntza lerroari atxikitzen zaio, 2022ko azaroaren 24ko ohiko osoko bilkuran onartuari, 2023ko dirulaguntzen plan estrategikoa aldatu ondoren. Laguntza horien helburua herrian merkataritza edo enpresa jarduera bat hasi nahi duen ekintzaile orori laguntzea da; era berean, hirigune historikoa oneratzea eta indartzea bultzatu nahi da, hutsik dauden lokalak okupatzeko estrategia garatuz, jarduera eta ekimen berriak jarriz eta alferreko eta gutxiegi erabilitako azalera mugituz, udalerriko hirigune historikoaren suspertze ekonomikoa bultzatzeko eta garatzeko. Horretarako, hori egiteko modurik onena hirigune historikoan ekimen ekintzaileak erakartzea dela zehazten da, berrikuntzan eta negozioaren kalitatean oinarrituta, horrela tokiko ekonomiari balio erantsia emanez.

#### **1. artikulua. Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da jarduera ekonomikorik gabe eta Aguraingo hirigune historikoan (BEPBaren mugaketaren arabera) dauden lokalak alokatzeko laguntzak emateko araubidea ezartzea – 2023ko urtarrilaren 1etik ondorengo –, jarduera ekonomiko bat egiteko.

Kanpoan geratzen dira honako jarduera ekonomiko hauek:

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) 674 taldean bildutako establezimenduak, jatetxe, kafetegi eta kafetegi-tabernako zerbitzu bereziei dagozkienak.
- Jarduera nagusi gisa EJZko 969. taldeko jarduerak egiten dituzten establezimenduak, jolas eta ausazko makinei, joko aretoei, apustu aretoei eta abarri dagozkienak.
- EJZko talde hauetan sailkatutako saltokiak:
  - 646.- tabako gaien eta erretzailearentzako artikuluen txikizkako salerosketa.

- 6474.- mota guzietako jangai eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, saltzeko gelak 400 metro koadro edo gehiago dituenen.

- 6475.- elikagaiak eta edariak, tabakoa izan ezik, saltzeko makinaren bidez hornitzea.

- EJZren 655. taldean sailkatutako saltokiak: erregaien, gas erregaien eta lubrifikatzaileen txikizkako merkataritza.

- 1. ataleko 81. taldea: finantza erakundeak: bankuak, aurrezki kutxak eta bestelako finantza erakundeak.

- EJSNren (Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala) 94. taldeko jarduera ekonomikoak:

- 941 enpresa, profesional eta ugazaba entitateen jarduerak.

- 942 sindikatuen jarduerak.

- 949 beste elkarte jarduera batzuk.

- 9491. Erljio erakundeen jarduerak.

- 9492. Erakunde politikoen jarduerak.

- 9499. Beste inon sailkatu gabeko beste elkarte jarduera batzuk.

- EJSNren 84. taldeko jarduerak:

- 841 administrazio publikoa eta politika ekonomikoaren eta sozialaren administrazioa.

- 842 zerbitzuak egitea erkidegoarentzat, oro har.

- 843 gizarte segurantza nahitaezkoa.

## **2. artikulua. Aurrekontu kreditua**

Dirulaguntza horietarako, guztira, 10.000 euro bideratuko dira indarrean dagoen udal aurrekontutik, betiere 430.471.001 aurrekontu partidaren kontura -"alde zaharrek saltokietarako lokalak alokatzeko dirulaguntzak"-.

Baldin eta, baimendutako kreditua agortuta gero erantzun gabeko eskabiderik badago, eta organo eskudunak hala erabakitzen badu, dirulaguntzak egotzita dauden aurrekontu partida handitu ahal izango da, ebatzi gabeko eskaerei erantzuteko, beste deialdi baten beharrik gabe.

## **3. artikulua. Onuradunak**

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izango dira pertsona fisikoak (autonomoak), ondasun erkidegoetako eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibiletako bazkideak, eta legez eraturako pertsona juridikoak, kasu hauetan daudenak:

a) Honako hauen titularra izatea:

- Jarduera ekonomiko berria, edo

- Agurainen dagoen establezimendu bat lekuz aldatzea ez dakarren establezimendu berri bat irekitzea. Udalerrian beste negozio bat duten eta establezimendu berri bat irekitzen duten enpresek jarduera garatzen zuten lokala gutxienez establezimendu berriaren dirulaguntza jasotzeko epean irekita eduki beharko dute, edo

- Etxebizitza batean edo bulego eraikinetan garatzen ari zen jarduera ekonomikoa.

b) Eta baldintza hauek betetzea:

- Jarduera ekonomikoa garatuko den lokalaren gaineko errentamendu kontratu baten titularra izatea, gutxienez urtebetekoa. Nolanahi ere, kontratua 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sinatu edo indarrean jarri behar izan da.

- Dirulaguntzaren xede den lokalak sarbide zuzena izan beharko du bide publikotik, solairuarterkoa edo sotoa ez dena, eta sarrera nagusia edo merkataritzako aurrealdea Aguraingo hirigune historikoko kaleren batekoa bada, BEPBn ezarritako mugaketaren arabera.

- EJZn alta emanda egotea 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta lokal horretako jarduera gutxienez 12 hilabetez mantentzea.

- Autonomia edo mikroenpresa izatea, eta ezaugarri hauek izatea:

1. Aktiboa edo eragiketa bolumena 2 milioi euro baino gutxiago izatea.

2. Plantillako batez besteko kopurua 10 pertsona baino gutxiago izatea.

3. Aurretik azaldutako baldintzaren bat betetzen ez duten enpresek zuzenean edo zeharka ehuneko 25eko edo gehiagoko partaidetzarik ez izatea.

- Enpresa jarduera gisa garatu nahi den negozioaren deskribapena idatziz ematea (eranskinean jasota dago).

- Onuraduna ezin izango da lokalaren jabea izan. Era berean, lokala ezin izango da izan pertsona juridiko eskatzaileen bazkideren baten jabetzakoa.

- Onuradunak ez du lokalaren jabetzarekin bigarren mailara arteko ahaidetasun harremanik izango (ezkontidea barne).

- Ez egotea dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako egoeraren batean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

- Berariaz kanpo geratzen dira elkarteak, klubak, fundazioak eta, oro har, irabazi asmorik gabeko erakundeak, langile autonomo laguntzaileak, bai eta ondare sozietateak eta sektore publikoko erakundeak ere.

#### **4. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa**

Dirulaguntza jarduera garatzen den lokalaren alokairuaren ordainketaren hamabi hilekoen ehuneko 50ekoa izango da gehienez, honako honen arabera:

- Alokairu kostuaren 100eko 50 2023an (gehienez 300 euro hilean lokal bakoitzeko).

- Lokalaren alokairuaren ordainketan gabealdirik egonez gero, enpresak errentatzaileari lehen hilekoa ordaintzen dion unean hasiko da ordainketa.

- Ez dira diruz lagunduko zergak, tasak, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ), lokalen fidantza eta higiezin kudeaketako gastuak.

- Nolanahi ere, diruz lagundu daitekeen azken ordainketa 2023ko abenduko alokairuari dagokiona izango da.

#### **5. artikulua. Eskabideak: izapidetzea, dokumentazioa, aurkezteko epea eta modua**

Eskaera egiteko, beharrezkoa izango da errentamendu kontratua sinatuta izatea eta jarduera ekonomikoa gauzatuko den lokalean EJZn eta Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea. Eskatzaile bakoitzak (NAN/IFZ) eskaera bakarra egin ahal izango du.

##### **5.1. Izapidetzea.**

Eskaerak Aguraingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, telematikoki, egoitza elektronikoan. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan jasotako erakunde guztiek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskabideak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduan eta lekuan ere aurkeztu ahal izango da.

Eskabidearen inprimaki normalizatuarekin batera (eranskina), pertsona edo erakunde eskatzaileek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko udalak eskatzen dizkien dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

#### 5.2. Eskaeraren dokumentuak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioak honako hauek jaso behar ditu:

- Inprimakia behar bezala beteta: eranskinean agertzen den inprimakiak 3 atal ditu: eskaera, erantzukizunpeko adierazpena eta negozio plana.

A. Eskaera: eskatzaile bakoitzak bere identifikazio datuak bete beharko ditu inprimakian, pertsona fisikoa (autonomia), nortasun juridikorik gabeko ondasun erkidegoetako edo sozietate zibiletako bazkidea edo pertsona juridikoa den kontuan hartuta.

B. Erantzukizunpeko adierazpena: inprimakian agertzen den eredia bete beharko du.

C. Negozio plana: eskatzaileak dirulaguntza eskatzen duen lokalean abian jarriko duen jarduera ekonomikoa deskribatu edo horri buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko du: enpresaren izena, kokapena, jarduera (ematen duen produktua edo zerbitzua), sortzen duen enplegua eta epe ertainerako aurreikuspena, ekonomia eta finantza plana,...

- Dokumentazio gehigarria: hauek aurkeztu beharko dira:

- Alokairu kontratuaren kopia.

- EJZ-Ekonomia Jardueren gaineko Zergako alden eta bajeen ziurtagiria, eguneratua.

#### 5.3. Ordezkaritza.

Beste pertsona bati eman ahal izango zaio ordezkaritza, eskatzailearen izenean jardun dezan bitarteko elektronikoen bidez deialdi honi dagozkion prozedura guztietan. Horretarako, "ordezkariaren datuak" eskaeraren atala erabiliko da, eta ordezkaritza eman izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko da modu osagarrian.

Pertsona juridikoen, gainera, beste pertsona bati ordezkaritza ematen dion erakundearen legezko ordezkari gisa ahalorde emailea legitimatzen duen ordezkaritza ahalordearen kopia edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein dokumentu erantsi beharko dute.

#### 5.4. Laguntzak argitaratzea.

Deialdia dirulaguntzen datu-base nazionalera (BDNS) bidaliko da, eta ALHAOn argitaratuko da.

#### 5.5. Eskaerak aurkezteko epealdia.

Interesa dutenek eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauen edukia onartzen dutela.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko urriaren 31n bukatuko da. Eskabideak eranskinean erantsitako eredian egin beharko dira. Udalak modu telematikoa eman ahal izango die eredu hori hala eskatzen duten pertsona guztiei.

#### 5.6. Eskaeran dauden akatsak zuzentzea.

Eskabidean edo harekin batera aurkeztu behar diren agirietan akatsik badago edo osorik ez badaude, 10 egun balioduneko epea emango zaie interesa duten erakundeei aurkitutako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ez badira, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da, aldez aurretik urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz ebazpena hartuta.

### 6. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedura

Dirulaguntzak lehia askeko araubidean esleituko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Lehia askea da dirulaguntzak funtsak eskaerak jaso ahala banatuz emateko prozedura, eskaeren artean lehentasunik ezarri beharrik gabe eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte, aurrekontu zuzkidurek ahalbidetzen duten arte.

## 7. artikulua. Kide anitzeko instrukzio organoa

Oinarri arautzaile hauetan jasotako laguntzak emateko instrukzio organoa Arabako Lautadako Kuadrillako ekonomia sustatzeko zerbitzua izango da, eta zerbitzu horri dagokio aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea. Zerbitzu horrek beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

Merkataritzako zinegotzigoak, Aguraingo Udaleko hirigintza zerbitzuko langileek eta Lautada Bizirik ACICSA elkarteko merkataritza teknikariak osatutako batzorde batek baliozkotuko ditu eskabideak.

Tokiko Gobernu Batzarra izango da ebazteko organo eskuduna, lehenengo paragrafoan aipatutako instrukzio organoak proposaturik.

Ebazpena emateko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, eskabidea deialdi honetan aurreikusitako epean sartzen denetik zenbatzen hasita.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ebazpena emateko ezarritako epea amaitu eta enpresa edo erakunde interesdunari ez bazaio ebazpenaren berri eman, eskatutako laguntza ukatu dela ulertu ahal izango da.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, hargatik eragotzi gabe administrazioarekiko auzietarako bidean aurkaratzea.

Eskabidea onesten edo ezesten duen ebazpena bide elektronikoz jakinaraziko zaie eskatzaile guztiei.

## 8. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

Ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera dagokion erregistroan sartu eta hurrengo egunetik aurrera. Epea igaro ondoren berriazko ebazpena ez bada eman, dirulaguntzaren eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Deialdiaren ebazpena hamar eguneko epean jakinaraziko zaie interesdunei, ebazpena eman den egunetik zenbatzen hasita.

Eskatzaileei jakinaraziko zaie dirulaguntzaren eskaera onartu edo ukatu den, bai eta dirulaguntzaren ekintzari dagokion azken zenbatekoa ere.

Ez zaio dirulaguntzarik emango justifikatzeko epea amaituta duen dirulaguntzaren bat justifikatu gabe duen erakunde onuradunari, ezta aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez duen erakundeari ere, hala eskatu bazaio.

Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta haren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita. Dena den, eta aurreko paragrafoan aipatu den administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean.

## 9. artikulua. Laguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren onuradunak, dirulaguntza kobratu ahal izateko, honako hauek aurkeztu beharko ditu Aguraingo Udaleko erregistro orokorrean, hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo lehenengo 15 egunetan:

1. Dagozkion alokairu hilekoen ordainagiria.

2. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten egiaztagiriak.

3. Zinpeko aitortpena, deialdi honen xede bererako beste dirulaguntzarik lortu den ala ez adierazten duena, eredu honen arabera:

Eskatzailearen izena eta abizenak: .....

Hau adierazten du, laguntza eskabide honetaz gain,

Proiektu beragatik ez du eskaerarik aurkeztu eta/edo beste laguntzarik jaso.

Eskaera aurkeztu du eta beste laguntza batzuk jaso ditu proiektu beragatik ondoko erakunde publiko edo pribatu hauetan egun arte:

ESKAERA URTEA	ERAKUNDEA	PROGRAMA / LAGUNTZA	EMANDAKO ZENBATEKOA

Justifikatutako hiruhileko bakoitzari dagokion laguntza hiruhilekoa amaitutakoan ordainduko da. Lehenengo ordainketa 2023an sortutako eskubideari dagokion zenbatekora atzeraeraginez ordainduko da, eta hori ere justifikatu egin beharko da, dagozkion ordainagiriak aurkeztuta.

#### 10. artikulua. Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin

Oinarri hauetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuetatik datozen beste laguntza batzuekin, baita diruz lagundu daitekeen gastua lokalaren alokairua denean ere. Hala ere, ordaindu beharreko zenbatekoa, beste laguntza batzuekin batera, ez da inola ere dirulaguntzaren xede diren ekintzen guztizko kostua baino handiagoa izango. Hori gertatuko balitz, Aguraingo Udalak eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko litzateke.

Oinarri hauetan ezarritako laguntzek edo dirulaguntzek beteko dute Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa (erregelamendu hori Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren 2013ko abenduaren 24ko 358. zenbakian argitaratu zen, eta Minimis laguntzetarako Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa da), bai eta ondoren egiten diren aldaketa guztietan xedatutakoa ere. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa jakin bati emandako minimoen laguntzaren guztizko zenbatekoa ez da 200.000 euro baino gehiagokoa izango hiru zerga-ekitaldiko edozein epetan. Muga hori aplikatuko da, minimoen laguntza edo lortu nahi den helburua edozein dela ere. Aipatutako muga gaindituz gero, oinarri arautzaile hauen babesean emandako laguntza gehiegizkoari dagokion zenbatekoan murriztuko da.

#### 11. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Dagoeneko udalerrian beste negozio bat duten eta establezimendu berri bat irekitzen duten enpresen kasuan, jarduera irekia garatzen ari den lokala (k) gutxienez establezimendu berriaren dirulaguntza jasotzeko epean mantentzea.

b) Dirulaguntzaren xede izan den lokala ixten bada (edozein arrazoirengatik jarduera etetea) eskatzen den denbora baino 12 hilabete lehenago, dirulaguntzaren onuradunak EJZri baja eman beharko dio merkataritza establezimenduan, eta Aguraingo Udalarari jakinarazi, itxi eta gehienez ere hilabeteko epean. Kasu horretan, deialdi honen kontura jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu onuradunak.

c) Aguraingo Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketak onartzea; horretarako, eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia jarri beharko du haren eskura.

d) Aguraingo Udalari jakinaraztea, finantzatzeko beste, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla jakin bezain laster, bai eta laguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu dela ere.

e) Justifikazioa epe barruan egitea, oinarri hauetan jasotako eskakizunak eta baldintzak betez.

f) Dirulaguntza justifikatzen duen dokumentazioa gutxienez azken ordainketatik hiru urtera bitartean gordeko dute, egiaztatze- eta kontrol-jarduketan xede izan daitekeen bitartean.

g) Jarduera hasteko beharrezkoak diren baimen guztiak izapidetzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

## 12. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

Jasotako zenbatekoa itzultzeko, hala dagokionean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluaren eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III. tituluaren xedatutakoa bete beharko da.

## 13. artikulua. Zehapen araubidea

Arau-hauste eta zehapenen araubidea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren ezarritakoa izango da.

## 14. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Aguraingo Udalak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak «sustapen ekonomikoa» izeneko tratamendu jardueraren osagai izango direla. Jarduera horren arduraduna Aguraingo Udala da eta haren helburua da Aguraingo Udalaren ardura diren sustapen ekonomikoko politikei lotutako dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea. Bildutako datuak beharrezkoak dira udalari emandako botere publikoak baliatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko, eta gai horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte, Aguraingo Udalari berari idatzizko jakinarazpena bidaliz.

## 15. artikulua. Araudi aplikagarria

Deialdi honetan ezarri ez den guztirako, honako hauetan xedatutakoa beteko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); hura garatzen duen Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); eta Aguraingo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza.

## A. ESKAERA

Noizbehinkako ordezkariari buruzko datuak (Eskaera hau prozedura honetarako izendatutako ordezkari batek aurkezten badu, osatu informazio hau).

ORDEZKARIAREN DATUAK	
Enpresaren izen soziala	
Enpresaren IFZa	
Enpresaren ordezkariaren izena eta abizenak	
Enpresaren ordezkariaren NANA	

Eskatzailea identifikatzeko datuak (osatu eskatzailearen forma juridikoaren arabera).

## 1.1 Pertsona fisikoa bada (autonomoa).

Izena eta abizenak	
NANa	

## 1.2 Ondasun-erkidegoa (OE), sozietate zibila (SZ) edo nortasun juridikorik gabeko elkarteak bada.

Sozietatearen izena	
OE, SZ edo nortasun juridikorik gabeko taldearen IFZa	
Ordezkiaren izena eta abizenak	
Ordezkiaren NANa	

## 1.2.1 OE, SZ edo nortasun juridikorik gabeko taldeko kideak.

1. BAZKIDEA	
Izena eta abizenak*	
NAN / IFZ	
Gauzatzeko konpromisoa eta aplikatu beharreko dirulaguntzaren %**	

2. BAZKIDEA	
Izena eta abizenak*	
NAN / IFZ	
Gauzatzeko konpromisoa eta aplikatu beharreko dirulaguntzaren %**	

3. BAZKIDEA	
Izena eta abizenak*	
NAN / IFZ	
Gauzatzeko konpromisoa eta aplikatu beharreko dirulaguntzaren %**	

\* OE edo SZko kidea pertsona juridikoa bada, adierazi haren izen soziala.

\*\* Errenten esleipenaren ehunekoak OE edo SZn.

## 1.3 Enpresa bat bada (pertsona juridikoa).

Enpresaren izen soziala	
Enpresaren IFZa	
Enpresaren legezko ordezkiaren izena eta abizenak	
Enpresaren legezko ordezkiaren NANa	

## 3. Banketxeko datuak.

Dirulaguntzaren onuradun izanez gero, honako hauek dira onuradunari zuzenean ordaintzeko banketxeko datuak:

Kontuaren titularraren izena eta abizenak/ izen soziala	
Bankua edo kutxa	
Bulegoa	

IBAN		ERAKUNDEAREN KODEA			BULEGOAREN KODEA			KD	KONTU KORRONTEAREN/AURREZKI KONTUAREN ZENBAKIA															
E	B																							



## B. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Jarri X dagokion lekuan:

Laguntzen oinarri hauetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak ezagutzen eta onartzen ditu, eta enpresak eskaeraren ereduetan eman dituen datuak egiazkoak direla ziurtatzen du.

Mikroenpresa gisa kalifikatua izateko beharrezko baldintzak betetzen ditu.

Establezimendua irekitzeak ez du esan nahi udalerriko beste zona batzuetan lehendik zegoen jarduera bat lekuz aldatu behar denik.

Ez du lokalaren jabetzarekin bigarren mailara arteko ahaidetasun harremanik (ezkontidea barne).

Onuraduna ezin izango / da lokalaren jabea izan. Era berean, ezin izango da izan pertsona juridiko eskatzaileen (sozietateen) bazkideren baten jabetzakoa.

Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio edo zigor arloko zehapenik, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, ezta sexu diskriminazioa dela eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera ezarritakoak ere.

Egunean ditu zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, egoitza fiskalarekikoak eta dirulaguntzak itzultzekoak, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamenduaren uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.etik 26.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, eta hori egiaztatzen duten agiriak aurkezteko konpromisoa hartzen du, erreferentziako dirulaguntza arautzen duen araudian aurreikusitako moduan.

Ez dago dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako gainerako egoeretako batean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Baimena ematen diot Aguraingo Udalari Nortasun Agiri Nazionala (NAN) egiaztatzeko (baimenik ematen ez badu, haren kopia aurkeztu beharko du).

Baimena ematen dut Aguraingo Udalak egiazta dezan Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak egunean ditudala (baimenik eman ezean, ziurtagiria aurkeztu beharko du).

Baimena ematen diot Aguraingo Udalari egiazta dezan Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharrak egunean ditudala (baimenik eman ezean, ziurtagiria aurkeztu beharko du).

Ez du zorrik Aguraingo Udalarekin (ofizioz berrikusiko da). Aguraingo Udalari eskatzen zaion informazio gutzia biltzeko, kontsultatzeko, egiaztatzeko eta ikuskatzeko baimena ematen diot.

Kontzeptu bera estaltzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, hutsik dagoen lokalaren alokairu prezioa baino zenbateko handiagorik jaso ez izana. Onuraduna izanez gero, honako taula hau bete behar da:

ESKAERA URTEA	ERAKUNDEA	PROGRAMA / LAGUNTZA	EMANDAKO ZENBATEKOA

### C. NEGOZIO PLANA

Dirulaguntzaren xede den lokalean abian jarri beharreko jarduera ekonomikoa deskribatzea edo horri buruzko dokumentazioa aurkeztea: enpresaren izena, kokapena, giza taldea, eman beharreko produktuaren edo zerbitzuaren deskribapena, enplegu aurreikuspena, bideragarritasun plana eta abar.

Behean sinatzen duena izango da emandako datuen egiazkotasunaren erabateko erantzulea.

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura.

Agurain, 2023ko otsailaren 15a

*Alkatea*

*ERNESTO SAINZ LANCHARES*